

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA 2019

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Txori txiki txuria Aitana Corretger Alvarez

Zeru urdintsu eta oskarbia
txori txiki txuri hura hegan ta hegan
nora joango ote zen, txori txiki txuria?
egun distiratsu, eguzkitsu hartan

Bueltaka, jiraka, biraka
pentsatzen hasia nintzen
hegan ta hegan zebilen txori txiki txuria
familiarik ote zuen?

Bidaia luzea bazeukan
ziur nintzen, bai
hegan egitean atzean utziz
mendi, laku, itsaso eta ibai

Ai gure txori txiki txuria!
nola zebilen pixkanaka
bere hegala ñimiñoak astinduz
egin gabe botaka

Bere kantu liluragarriak intonatzen zituen
herriko izkin ilunenak alaitzeko
jendea jira biraka zebilen
haren edertasuna begiesteko

Aurpegi xelebrea ordea,
polita, txikia, alaia
hegalak zabal zabalik zeraman
eta bere begitarte arraia

Txori txiki txuriak bakarrik hegan egin zezan,
zein izango ote zen bere helmuga? Grezia?
edo Paris, Londres, Iruña, Suedia?
Izan beharko zuen egundoko abilezia

Eta gu... txoriak bezain libre izango bagina?
nahi duen edonork hegan has dadila
birritan pentsatu gabe, noski,
eta atzean utzi dezala bere burbuila

Begiak egunero ireki,
egunsentia hegan eginez gainditzea,
nori gustatuko litzaioke
horrelako pelikulan murgiltzea?

Aireak aurpegia leuntzea eta
egundoko bistak ikustea
sekulako abantailak dira bakarrik...
eta egunero ez janzte!

Problema guztiak alde batera
bakarrik pentsatu gure bakean
gure familiarekin egon
eta egunak utzi atzean.

Zuri xuxurlatu nizun belarrira
nirekin eramango zintudala, maitea
hegan eginez Iruña zeharkatzea
a zer nolako zortea!

Txoriak ederrak benetan
beti egongo dira nire bihotzean
egunero arima bozkariatzen didate
baina batez ere jaio nintzen momentuan

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA | IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2019

EUSKERA POESÍA 14-16 URTE

HIRUGARREN SARIA

Txori txiki txuria izan nahiko nuke,
gaur hemen, bihar han,
ez nintzateke batere aspertuko
nire bizitzako bidean.